


## ezagutzen al duzu Donostia?

### Arriaga

Leku honen benetako izena «Arriaga» da, eta ez «Arriya», idazteko behintzat. Arriaga Altzako etxe zahar eta garrantzitsu bat izan zen. XVI. mendean aipatzen da hasieran «Arraiaga» eta ondoren «Arriaga» deitzen zen oienetxea. Herri berean dagoen «Berra» etxekoan ahaideak ziren Arriagatarak.

Txirrita gure bertsolari handia ere etxe honetan bizi izan zen. «Gazteluene» baserrira pasa aurretik. Oinetxe honen lurretan «Arrizar» auzo berria eraiki



Orain Arriaga parkea dagoen tokian lehen izen bereko etxe zahar eta garrantzitsua zegoen. Etxe hartatik harmarria bakarrik geratzen da.

zuten 1960-1970 hamarkadan; etxea abandonatu egin zuten eta sute batek erre zuen. Bere hondakinetatik harmarria salbatu zen. Azken urte hauetan orube hau parke bihurtu da; «Arriaga parkea».


Pentsa etxe honek ze garrantzia duen, Portugaletik ordezkaritza kultural bat etorri zela, 1960. urte aldera 1911-1915 artean portugaldar Errepublikako aurreneko lehendakaria izan zen Doctor

Manuel de Arriagaren abizenaren jatorria ezagutzera. Ez dakigu portugesez hauek ze inpresio hartuko zuten gure «Arriaga» zaharra zatarturik ikusita!

JOSU TELLABIDE

ANGULAS AGUINAGA-ren PRODUKTU BERRIAK

## DASTATU GABE EZ ZAITEZ GELDITU



GULAK GAMBAKIN

Txangurro erara prestatutako TXANNORTE

GULAK BARATXURIOJOTAN

Labean edo Microondas-ean berotu besterik gabe, jateko prest.

